

BRASIL:  
LATIFUNDIOKO KRIMENEN AURKAKO NAZIOARTEKO AUZITEGIA.

**GIZA ESKUBIDEEN KRIMENEN GAINEN ESKUDUNTZA  
JUSTIZIA FEDERALAREN ESKU UZTEKO  
LEGE PROIEKTUAREN ALDEKO KANPAINA**

Urriaren 27tik 30era, Belem-en, Latifundioko Krimenen Aurkako Nazioarteko Auzitegia bilduko da, Pará estatuan zein Brasil osoan behin eta berriro gertatzen diren giza eskubideen bortxaketak direla-eta Brasileko eta nazioarteko iritzi publikoaren arreta erakartzeko helburuarekin. Auzitegiaren saioetan pertsona gailenek hartuko dute parte, Brasileko landa-eremuetan bizi den egoera larria salatzeke asmoz

Auzitegiak beste helburu bat ere badu, Gobernu Federalari Konstituzioaren zuzenketa bat onar dezala exijitzeko martxan dagoen kanpaina bultzatzea; zuzenketa horrek, hain zuzen ere, Justizia Federalaren esku utziko luke giza eskubideen aurkako krimenak epaitzeko eskuduntza.

**Sem Terra Mugimendua sustatzen dugun taldeok auzitegi eta kanpaina honekin bat egiten dugu eta espero dugu zuok ere parte hartzea. Horretarako, zuon atxikimenduak ondoko helbide elektronikotara bidal ditzakezue: [kibilbo@herriak.org](mailto:kibilbo@herriak.org) edo [gernimundu@euskalnet.net](mailto:gernimundu@euskalnet.net).**

**Jasotako atxikimenduak, asteartean, urriaren 28an, emango zaizkie Brasileko agintariei, Brasilek Bilbon duen kontsuletxean egingo den ekintzan.**

Komite Internazionalistak eta Gernikatik Mundura

Brasilgo baserritarren inguruko berri gehiago izateko:  
<http://euskalherria.indymedia.org/eu/2003/10/10055.shtml>

Latifundioko Krimenen Aurkako Nazioarteko Auzitegiak gehiago jakiteko:  
<http://euskalherria.indymedia.org/eu/2003/10/10054.shtml>